



Bilatu

HERNANI GOIZUETA ARANO EREÑOTZU ASTIGARRAGA Multimedia **Publizitatea** **Bazkide** KOMUNI **Hemeroteka** **egin**



Maixa Zugasti idazlea eta Inazio Mujika editorea ostegunean, Donostian.

albistea//LITERATURA

Semeekin hazitakoa, Maixa Zugastiren bigarren eleberria

'Ahotsak eta itzalak' bigarren liburua argitaratu berri du Hernanin bizi den tolosarrak. Ostegunean aurkeztu zuen.

HERNANI

2018/04/21 00:00 Larunbata

Nahiz eta argia ikusten bigarrena izan, idatzitako aurreneko eleberria du Maixa Zugastik *Ahotsak eta itzalak*, ostegunean Donostian aurkeztu zuena. «Duela 18 urte hasi nintzen istorio hau idazten, nire seme zaharrena barruan nuela, eta hamar urtez aritu nintzen sortzen», azaldu zuen Zugastik.



Horregatik, hain zuzen, dio «ilusioa» egiten diola argitaratuta ikusteak, «nire semeekin hazi» baita.

Erbestea, Aita Barandiaranen dokumentuei esker

Ahotsak eta itzalak fikziozko eleberria dela argi utzi du, baina baduela errealitatearekin lotura txiki bat. Izan ere, dokumentazio lana oso garrantzitsua izan da kasu honetan: «Aita Barandiaranek jasotako 136 txosten, erbesteratuen lekukotasun zuzen eta gordinak, erabakigarriak izan dira».

Hala sortu du, hain zuzen, Luis, Arturo eta beren aitaren istorioa. Hirurak Gerrate Zibilak Euskal Herrian eztanda egin baino lehen erbesteratu ziren. Baina han Sarzinako egoitza diplomatiko batean biziko dira hilabete batzuetan, bat-batean sarraski bat gertatu arte. Ondoren, urteak pasatzean, Luisek gertatutakoa ikertuko du; bere emazte Teresak osatuko du egia osoa, eta senarrari ezkutatu egingo dio.

Istoria osatzerakoan izandako garrantziaren islada, bigarren mailako pertsonaia batek Joxe Migel Barandiarani omenalditxoak egingo dio; hori izango da Aita Basarte.

Egungo egoerarekin, antzekotasuna

Zugasti egilearen ustez, gaurkotasuna daukan gaia da liburuak lantzen duena. Alde batetik, garrantzia dauka «memoria historikoaren eraikuntzan, gizarte guztiarentzat eta bereziki, gazteentzat, oso garrantzitsua delako gure egiaren ezagutza». Eta bestetik, gaur egun ere erbesteratzea pil-pilean dagoelako: «ACNURen datuen arabera, gaur egun munduan 65,3 milioi pertsonak utzi dute herria horrelako arrazoiak direla medio». Egoera hori, «lotsagarria» dela dio Zugastik, eta horren aurrean, «kezkatu» egiten duela, gazteak nola informatzen diren.

Hiru aldiz berridatzita

«Heldutasun haundiko eleberria da, xehetasunetan arreta haundia eskaintzen duena», adierazi zuen Inazio Mujika, Erein argitaletxeko editoreak. Eta hori lortzeko, lan-prozesu luzea egin behar izan zuela onartu du Zugastik: «Urte asko igaro ditut testua lantzen, zuzentzen, eta hiru aldiz laburtu dut. Ez dut inoiz ondo ikusten, eta beti aldatuko nuke zerbait. Nik perfekzioa besteengan ikusten dut».

Agenda Bateratua

HERNANI

10:00 Erakusketa
**Euskal Herriko frontoiak:
 1873-1876**
 Biteri kultur etxea

ASTIGARRAGA

16:45
Ludoteka
 Ikastolako atzealdean

19:30 Azukrea belazeetan
Irakurketa Kluba
 Liburutegian

//Erabiltzaileak